

Artadixa: aspaldiko garaixetako laguna

Zenbat bidar entzun bihar izan dogun ermuarrok gure herrixan, etxiak, kaliak eta asfaltua baiño ezdaola. Alde batetik, arrazoi apur bat be badakela esan bihar dot, ze jente gehixena kotxiakin pasatzen da gure herritxik eta ezdake aukerarik aparteko beste askorik ikusteko.

Baiña laga daiguzan kotxiak apar-kauta, herriko kalietatik urten eta guazen herri-ingurutik osteratxo bat eitxera, ia ze nolako bitxikeriak topatzen ditzugun gure mendi-magaletako basuetan.

Goixian goiz jaiki eta Artarraira bueltatxo bat emotia pentsau dot; *Anbulatorixua* eta *Santuko* atzian laga eta ondoko arbolei begira hasi naz. Bidian zihar batez be piñarixak ikusten ditzut, baiña tarteka-tarteka landautako piñuen artian, haretx eta urki batzuk be ikusten ditzuraz; garai baten inguru hau aresti zabalen menpian egongo zan señale. Errekastuen onduran ura hain gustokua daken lizarrak eta saratzak. Baiña gora eta gora eññ, Artarraira aillegau eta baso guztiz desbardiña topau dot: "ARTADIXA", artia (*Quercus ilex*) jaun ta jabe dan baso itxi-itxixa! Gaiñera negua izanda be, zuhaitz gehixenak orrixak gainian dakez: artiak berak, gartxuak (*Phyllirea latifolia*),

karraskilliak (*Rhamnus alaternus*), gorostixak (*Ilex aquifolium*), gurguxiak (*Arbutus unedo*), epuruak (*Juniperus communis*)... Ha zelako aberastasuna landare kontuetan!

Baiña... zelan topau leike ba, Mediterraneo ixurialdeko leku hain sikuetan zabaltzen dan basua, Ermua moruko leku hain humel eta euritsuan?

Liburuetan begiratzen hasi eta hara nun topatzen doten erantzuna:

Urtiak eta urtiak dia (millaka diñue) gure eskualdeko klima oiñ daona baiño askoz be siku eta beruaua izan zala, klima mediterraneoan antzerakua. Holan izanda, artia oso gustora bizi zan gure inguruan eta baso galantak sortu zitxuan, leku guztixetatik zabalduz. Baiña urtiak pasau eta urtiak pasau eta egualdixa be kanbixatzen hasi zan, gaur egun dakagun klima humel eta euritsua izateraiño. Hori dala ta, hezetasuna gustokua daken beste zuhaitz batzuk (aretxak, paguak, urkixak...) artia-



ri lekua irabazten hasi zian eta gure artadi koitxaua, bera bakarrik bizi ahal dan leku berezixetara apartau zan. Honek lekuok, kareharritzko mendixka aldapatsuak dia (Artarrai, Untzama gañia...) eta bertan emoten dian baldintzak artadixantzako leku aproposa eitzen dabe.

Holako lekuetan, kareharrixen gañian, lur gitxi batzen da; hau dala ta, ezta egokixa lur sakonak bihar dabezan zuhaitzendako (aretxak, piñuak...). Horrekin batera, euri-ura be aldapetan behera eta kareharrixak dakazen arrakalatetik zihar errez juaten da, lurra nahikua sikua izaten da. Gaiñera hain lur gitxi eta harritsua egonda, eztake balixo askorik belardixak, ortuak eta piñarixak aurrera ataratzeko. Holan ba,



EKINZA

ESKOLAKO MATERIALEA.....

KOPIAK KOLOREZ

FAX PUBLIKOA.....

• Goienkale, z/g
• Tlf. 17 20 08



OINAK

LEIRE MAYORA

PODOLOGOA

San Pelaio 8C, behea
48260 Ermua
☎ 943 17 47 44

komunitateak
aseguruak

San Pelayo

aholkularitza
fiskal eta juridikoa

San Pelaio 6-A (Eroski gainean)
46 P.K. - Ermua

ESTANCO SOLOZABAL

Torrekoa z/g
48260 ERMUA (Bizkaia)
Tlf. (943) 17 07 33

AKADEMIA

ERMUA INFORMATIKA

TRESNERIA ETA OSAGAI
INFORMATIKOEN SALMENTA

Goienkale kalea z/g
Telefonoa (943) 17 90 38

IZOTZ KONJELATUA



Ermuko Merkata, 54
eta 55 postuak
943 17 41 01
Arrasateko Merkata
943 77 05 98

artadixak gaur egunerarte iraun dau gure artian Artarrain (justo-justuan, ze ixa-ixa kanteriak osorik jan dau!!). Baiña honekin ezdot esan nahi artadixak eta horrek lurrok ezdabela ezetarako be balixo, ze aspaldiko garaixetan, ingurukuak, bertako zuhaitzen egurra-kin egur-ikatz ezin hobia eitxen eben, eta han topatzen dian fruitu eta landariak be sarritxan batzen zian janari eta sendabelar moruan erabiltzeko.

Gizakixa albo batera lagata, animalixentzako be leku oso aproposa da euren gordeleku eta habixak eitxeko eta urte guztixan zihar be baso honek jateko ugari eskeintzen dotse: ezkurak, fruituak...

Gogoratu baita, artadixan zozuak, eskillasuak, txindorrak, txinbuak eta beste hegazti asko ikusi geinkezela eta basurdia, basakatua eta katanarra moduko ugaztunak.

Horra ba, Ermutik gertu, urriñera juan barik be, ha zelako aberastasuna eta bitxikerixak topau geinkezan!

Oiñ badakizue. Beraz animau eta juan osteratxo bat eitxera, merezi dau eta iraganeko garaixetako aztarna hau ikustiak!!

Edorta Uruamano



Aspaldiko sasoietatik ezagutzen da Ermua "Villa Ferrera" moduan, kakotxa arteko izendapen hau herrixak fierroarekin, burdiñarekin ekan hartuemonaren erakustaille izanda. Txokau eitxen dau Enkarterixetako burdin-mehategi nagusixetatik hain hurin euan leku bati egokitzia holako goitizena; baiña handik ekartzen zan mineral garbixa ezpata, erremintxa, giltz edo lapiko bihurtzeko Ermuko errementari, perratzaile eta olagizen trebezia entzute haundikua zan. Burdiña urtzeko gau ta egun egon bihar izaten eban ixotuta suak eta su horrek harran bihar izaten eban egur-ikatz. Paraje arbolatsuak ziran honek guriok, zuhaitzez jositxa genduazen baztarrok eta aberastasun horren erakustaille dia gure mendixetako malda, txatal eta aldaparak deitzeko erabillitxako le-

ku-izenak. Fernando Aranberrik plazara utako "Ermua-Eitzaga leku-izenak. Geure izanaren barrena" liburuak hurreratu gaitxu inguruko mendixon jatorrizko paisaira:

Ametza, Ametziburu. Aresti, Arestiburu, Arestizabal, Aretxategi, Arizmendi, Ariztibari, Artabe, Artaluzealde, Artaluze, Artaluzeko lezea, Artaluzeko tontorra, Artarrai, Artarraiko lezea, Artarregi, Artegiluze, Artegiluze-barrena, Elorretabekoa, Elorretaburu, Elorretagoikoa, Errigaztañadi, Erikastañadizarra, Gaztañadia, Gaztañadizarra, Gaztañatxiki, Gaztañazuloa, Gaztañabarrena, Gaztañisakona, Intxaurreta, Irupago, Lexardi, Lizardi, Pagadieta, Pagadisakon, Pagatxueta, Pagoetako laua, Pagope, Pagorbe.

Estibalitz González

Euskaldunagoa? Oso zaila dago.

Independenteagoa? Ez da erraza.

Pluralagoa? Zein bezain plurala?

Hobea? Hoberena zen.

baina
hobetuko dugu
zure laguntzarekin

berria berri

Akzioei buruzko informazioa:

www.ektsa.net Tf: 635 733 385 · 635 733 386